



SERUM AUTOLOGOAREN BIDEZKO TRATAMENDUA HARTZEN ARI DIREN PAZIENTEENTZAKO INFORMAZIOA

Oftalmologoak serum autologoaren bidezko tratamendua agindu dizu. Serum hori prestatzeko odola atera dizute, eta hori erabiliz prestatu da seruma. Ondorioz, **serum-kolirioa ZUK BAKARRIK ERABILTZEKO da. EZ ZAIO BESTE INORI EMAN BEHAR.**

Ondorio kaltegarriak

Begi-narritadura arina, erremina, malko-jarioa edo ikusmen lausoa sor daiteke, baina minutu gutxitan desagertuko da. Sintoma horiek desagertzen ez badira edo intentsuak badira, medikuari jakinarazi behar diozu.

Tratamenduaren iraupena

Medikuak esango dizu nola eta zenbat denboraz hartu behar duzun kolirioa.

Hartzeko modua eta badaezpadako neurriak

Lehenengo eta behin eskuak garbitu behar dituzu, eta kolirioa botatzean, kontu handiz ibili behar duzu dosifikagailuaren muturra behatzekin ez ukitzeko, edo betileak ez ukitzeko.

Kolirio bakoitza bost egunez bakarrik erabiliko da, eta epe hori igarotakoan bota egin beharko da.

Kontserbatzeko baldintzak

Erabiltzen ari zaren ontzia hozkailuan gorde behar duzu, eta ireki eta bost egunera bota egin beharko duzu. Erabili gabeko kolirioak izozkailuan kontserbatu behar dira, erabiltzeko unera arte. Prestatzen direnetik 30 egunera iraungiko dira.

MEDIKAMENTUAK HAUREK HARTU EZIN DITUZTEN TOKI BATEAN GORDE BEHAR DIRA